GAMIZ-FIKAKO UDALA
BIZKAIA

BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN KARATULA

SAN ANDRES BASELIZA – UTRUNE – PEPILLONE – EMAUS LANDA BIDEA KONPONTZEKO ETA ASFALTATZEKO OBRAK

PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA

I. KONTRATUAREN ELEMENTUAK
ESPEDIENTE-ZENBAKIA: B038-2026-00005
KONTRATUAREN XEDEA: San Andres baseliza – Utrune – Pepillone – Emaus landa bidea konpontzeko eta asfaltatzeko obrak
ESPEDIENTEA SUSTATZEN ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA IZAPIDETZEAZ ARDURATZEN DEN SAILA: Idazkaritza
KONTRATAZIO-ORGANOA: alkatetza
CPV KODEA: 45233223-8 Trabajos de repavimentación de calzadas
ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUA (SARA): ☐ Bai ☒ Ez ☐ SPKLren IV. eranskinean zerrendatutako zerbitzuak xede dituen kontratua da, eta ez du gainditzen SPKLren 22 c) art. kopurua
KONTRATAZIOAREN ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA JAR DAITEKE: ☐ Bai ☒ Ez
LIZITAZIO ELEKTRONIKOA: ☒ Bai. Lizitazio honek bitarteko elektronikoen bidez bakarrik onartzen du eskaintza aurkeztea. Horretarako: 1.- Eskaintzak Gamiz-Fikako Udalaren Kontratatzailearen Profilean aurkeztuko dira, udalaren webgunean argitaratuta https://www.gamiz-fika.eus/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orriak/Listado.aspx 2.- Jakinarazpenak agerraldi elektronikoaren sistemaren bidez egingo dira. Eskaintza bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko, ikusi jarraibideak karatula honetako “eskaintzak aurkezteko erregistroa” atalean. ☐ Ez
KONTRATU-DOKUMENTUAK: Esleipendunak bere proposamena egitean bere gain hartzen dituen betebehar gehigarriak alde batera utzi gabe, kontratu-izaera izango dute honako dokumentu hauek: karatula, administrazio-klausulen agiria (aurrerantzean, AKP), baldintza teknikoen agiria (aurrerantzean, BTP), kontratua esleitzeko ebazpena eta kontratua formalizatzeko agiria**.**
LOTEETAN ZATIKETA:

☐ Bai.
☒ Ez, justifikazio-memorian adierazitakoaren arabera, ez da bidezkoa sortatan banatzea.

KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO BETEARAZTEKO EPEA. LUZAPENA.

HASIERAKO KONTRATUA noiztik noiz arte (datak) edo noiz bukatu:	2027-01-07/ 2027-2-8
ZENBAT HILABETE:	Hilabete 1
NOIZ HASI:	Obraren Zuinketa-akta sinatzerakoan.
EPE PARTZIALAK (ez/bai, honako hauek dira prestazioaren zatiak hasteko edo amaitzeko epe partzialak): Ez	
LUZAGARRIA (abisua 2 hilabete arinago) (*)	Ez
ZENBAT LUZAPEN	
LUZAPEN BAKOITZAREN IRAUPENA (hilabetetan)	
GEHIENEZKO IRAUPENA (HASIERAKO KONTRATUA + LUZAPENAK) (hilabetetan)	

(*) Kontratua luzatzea nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, betiere kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago gutxienez jakinarazten bada.

PREZIOA ZEHAZTEKO SISTEMA:

	Nola egiten da lizitazioa
☒ **Oroharreko prezioan**. Ez da onartuko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe) gainditzen duen eskaintzarik.	Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (LOA) gaineko baja, BEZ gabe
☐ **Unitateko prezioa** (gauzatze- edo denbora-unitateak: €/ menu edo €/ ordu) Prezio horiek gehienekoak dira, eta, beraz, horiek gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira. **Kontratuaren objektua osatzen duten prestazio-unitateen kopurua zehazki definitzen da:** ☐ Ez, eskaeraren arabera beharrezkoak diren unitateen kopurua eskuratuko da, eta lizitazioaren aurrekontuaren zenbatekoa izango da muga. ☐ Bai, kontratuaren xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez definitzen da, eta esleipen-prezioaren zenbatekoa ezartzen da muga gisa.	Unitateko prezioaren gaineko baja

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA (LOA):

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA	**116.476,56 €**
BEZ (% 21)	24.460,08 €
LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA	**140.936,64 €**

Kopuru hori izango da beheranzko eskaintzetarako erabiliko den gehieneko kopurua, eta kopuru hori gainditzen duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira.

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZik gabe). Publizitatearen eta aplikatu beharreko esleipen-prozeduraren ondorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia hau da:

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (LOA) (BEZik gabe)	116.476,56 €
Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe)	0
Lizitatzaileei ordaindu beharreko sarien edo primen zenbatekoa (BEZik gabe)	0
Aukeren zenbatekoa (BEZik gabe)	0
Luzapenaren zenbatekoa (BEZik gabe)	0
GUZTIRA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA	**116.476,56 €**

AURREKONTU APLIKAZIOA ETA EGOTZIKO ZAION URTEA:

Gastuaren aurrekontu-aplikazioa eta kontratuaren aurrekontu-urtesariak honako hauek dira:

Aurrekontu-aplikazioa:	Urtea	Zenbatekoa (BEZ barne)
1532-60100 (asfaltos)	2026	140.936,64 €

IZAPIDETZEA:

☒ Arrunta
☐ Presazkoa
☐ Aurretizkoa. Kontratua finantzatzen duten baliabideak benetan finkatu behar dira esleipena egiteko.

II. KONTRATATZEKO BALDINTZAK

GAITASUNA:

Pertsona natural edo juridikoak beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruko prestazioak dituzten kontratuen esleipendun baino ezin izango dira izan.

KAUDIMENA:

Kaudimeneko gutxieneko betekizun batzuk edukitzeko betebeharra:

☐ Ez. prozedura supersinplifikatua denez (SPKL 159.6), operadore ekonomikoak kaudimen hori egiaztatzetik salbuesten dira.
☒ Bai. SPKLren 159.4.a artikularen aplikazioz, prozedura ireki sinplifikatuan Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion erregistro ofizialean izena eman izanaren egiaztagiria aurkeztu behar da. Bertan agertzen den sailkapena hurrengo hau izan behar da:
ESKATUTAKO ENPRESA-SAILKAPENA:
Taldea: G Viales y pistas, Azpitaldea: 4, 5 eta 6, Kategoria: 1 edo gehiago.
Gamiz-Fikako Udaleko kontratazio-zerbitzuek dagokien erregistrora joko dute, bertan dagoen informazioa ziurtatzeko.

159.4.a artikuluan ezarritakoaren arabera, lizitatu ahal izateko, enpresak alta emanda egon behar du lizitatzaileen erregistroan, estatukoan edota autonomikoan. Erregistroan alta ematerakoan enpresari dagokion sailkapenarekin egiten da.

Hala ere, 77.1.b artikuluaren arabera, kaudimena frogatzeko ez da nahitaezkoa sailkapena, 500.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duen obra kontratu baten aurrean gaudelako. Beraz, erregistroko inskripzioa egiaztatzen duen dokumentazioan ez bada egiaztatzen karatula honetan zehazten den sailkapena, kaudimena honela frogatu ahal izango da:

EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA. BETEKIZUNA: Hauetatik bat	**GUTXIENEKO ZENBATEKOA**	**EGIAZTATZEKO MODUA**
Kontratuaren eremuko **urteko negozio-bolumena,** adierazitako zenbatekoaren parekoa edo handiagoa, BEZik gabe, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietako onenari dagokionez.	**Gutxieneko zenbatekoa:** bolumen handieneko urteko zenbatekoa gutxienez 116.476,56 eurokoa izango da.	Erantzukizunpeko adierazpen bidez, A gutunazalean sartu behar den erantzunkizuneko adierazpenean datorren bezala adierazita. Nolanahi ere, <u>udalak egokitzat jotzen duenean, enpresak ezarritako kaudimena justifikatzeko informazio ekonomikoa eskatu ahal izango du.</u> (*Oharra: Merkataritza-legerian ezarritako urteko kontuen erregelamendu-ereduetako galdu-irabazien kontuan agertzen den negozio-zifraren zenbateko garbia hartuko da urteko negozio-bolumentzat)*
Erantzukizun zibileko aseguru poliza: Arrisku profesionalak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguru bat edukitzearen egiaztagiria.	140.936,64 eurokoa	Aseguratzaileak egindako ziurtagiria, non aseguratutako zenbatekoek eta arriskuak eta aseguruaren epe-muga jasotzen diren; eta, kasu bakoitzean, asegurua egiteko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslea duela adierazten duen agiria /edo Aseguru etxeak egindako polizaren kopia (<u>kasu honetan, soilik esleipendun enpresari eskatuko zaio).</u>
TEKNIKO ETA PROFESIONALA. BETEKIZUNAK.	**GUTXIENEKO ESKAKIZUNAK**	**EGIAZTATZEKO MODUA** *(esleipendun izateko proposatutako enresak bakarrik aurkeztu beharreko dokumentazioa)*
Kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzuetan **esperientzia** izatea.	Azken bost urteetan, 45233223-8 Trabajos de repavimentación de calzadas CPV kodeko bi kontratu egikaritu izatea.	Erantzukizunpeko adierazpenean alde hau betetzea. Udalak errekeritzen badu, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako lanak, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, edo hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, azken ziurtagiri hori ez badago, enpresaburuaren adierazpen baten bidez.

GAMIZ-FIKAKO UDALA
BIZKAIA

III. LIZITAZIOA

ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA:

☐ Prozedura irekia
☒ Prozedura irekia sinplifikatua. Justifikazioa: KBZ 2.000.000 € baino gutxiago da.

Adjudikazio-irizpide bakarra dago:
☐ Bai, prezioa.
☒ Ez, adjudikazio-irizpide asko daude.

LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA:

- Gamiz-Fikako Udalaren kontratatzailearen profila: https://www.gamiz-fika.eus/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orriak/Listado.aspx
- Europa Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratzea:

  ☐ Bai dagokio
  ☒ Ez dagokio

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:

Hogei (20) egun, Gamiz-Fikako Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako egunerarte. Eskaintzak egunean 24 orduz aurkeztu ahal izango dira asteko 7 egunetan.

Lizitatzaileek eskaintza bi fasetan bidaltzea erabakitzen badute, adibidez, eskaintza transmititzeko zailtasunak dituztelako, eskaintzaren tamainaren ondorioz, sarearen konexio-arazoengatik, eta abar, eskaintzak aurkezteko epea eta ordua amaitu baino lehen bidali beharko dute beti beren eskaintzaren hatz-marka elektronikoa ("hash"), honako helbide elektroniko honetara: gamiz.fika@bizkaia.org eta adierazten den espediente-zenbakia adierazita.

PLEGUAK ETA GAINERAKO AGIRIAK LORTZEKO LEKUA:

- Gamiz-Fikako udaleko kontratatzailearen profilaren bidez: https://www.gamiz-fika.eus/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orriak/Listado.aspx

ESKAINTZAK AURKEZTEKO ERREGISTROA:

1.-**Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko** Gamiz-Fikako Udalaren Lizitazio Elektronikoko Plataforman, kontratuaren datuei dagokien fitxan dagoen lizitazio honi dagokion eskaintzaren eskema erabiliz.

https://www.gamiz-fika.eus/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/lizitazio_gida/lizitazio-gida.pdf

2.-**Jakinarazpenak agerraldi elektronikoaren sistemaren bidez egingo dira**.

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko euskarri zerbitzuaren telefonoa honako hau da: **946000022**

Proposamenak beste edozein bidetatik aurkeztea lizitaziotik kanpo uzteko arrazoi izan daiteke.

INFORMAZIOA:

Alderdi teknikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:
- helbide elektronikoa idazkaritza.gamiz-fika@bizkaia.org
- teléfono zkia: 94 615 31 14

Alderdi juridikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:
- helbide elektronikoa: idazkaritza.gamiz-fika@bizkaia.org
- telefono zenbakia: 94 615 31 14

KONTSULTAK ETA ARGIBIDEAK:

Kontsultak aurkezteko modua: Honako helbide elektroniko honetara bidalitako mezuaren bidez: idazkaritza.gamiz-fika@bizkaia.org

Kontsultak aurkezteko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken eguna baino sei egun natural lehenago, gehienez.

Lizitatzaile guztientzat interesgarriak diren kontsulten erantzunak https://www.gamiz-fika.eus/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orriak/Listado.aspx kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, lizitazioaren fitxategiak atalean. Argitaratzea egingo da eskaintzak aurkezteko azken eguna baino 3 egun natural lehenago.

Kontsulten izaera **loteslea**: bai.

DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA: AURKEZTU BEHARREKO GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO KOPURUA:

GUTUN-AZAL BAKARRA:

gutun-azal bakarra: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:

GUTUN-AZAL BAKARRA: "ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

A.1.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA. (I. eranskineko ereduaren arabera).

A.2.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA (II. Eranskineko eskaintza-ereduaren arabera). Bertan jasoko dira ere formula bidezkuantifika daitezkeen irizpideak. Kasu honetan bermearen luzapen proposamena eta hobekuntzak.

(Eranskinetan ezarritako eredua aldatzen duten eskaintzak aurkeztea lizitaziotik kanpo uzteko arrazoia izan daiteke.)

A.3.-ABEE-UTE: ABEEaren kasuan, ABEE eratzeko konpromisoaren eredua aurkeztuko da* (I.BIS eranskinean agertzen den ereduaren arabera).

* oharra: ABEEaren edo kanpoko bitartekoekin kaudimena integratzearen kasuan (SPKL 75) erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da enpresa bakoitzeko.

Ohartarazten da proposamenak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango dela une erabakigarria legez eta karatula honetan kontratatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen diren ikusteko.

GAMIZ-FIKAKO UDALA
BIZKAIA

IV. ESKAINTZAK ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

ADJUDIKAZIO-MODUA. Adjudikatzeko irizpide batzuk, prezio-kalitaterik onena lortzeko

Irizpide kuantitatiboak	100 %

FORMULEN ARABERA KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK % 100 (100 PUNTU):

BALORAZIO-IRIZPIDEAK	GEHIENEKO PUNTUAK	GUTUN-AZALA: "B" FORMULEN ARABERA KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK
IRIZPIDEA: PREZIOA: Eskaintzarik merkeenari gehieneko puntuazioa emango zaio, eta gainerako eskaintzaren puntuazioa honako formula honetatik ondorioztatuko da: eskaintza ekonomiko baxuenaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikatu beharreko puntu kopuru osoarekin biderkatzea. Hau da: Ob da eskaintza ekonomiko baxuena eta Ol da baloratzen den lizitatzailearen eskaintza, z irizpide $\frac{Ob}{Ol} * Z$ honetan aplikatu beharreko gehieneko puntu kopurua delarik.	70 puntu	**PROPOSAMEN EKONOMIKOA EREDUA (II eranskineko ereduaren arabera)**
IRIZPIDEA: nahitaezko bermea luzatzea. Lizitatzaileak puntu bat lortuko du gutxieneko bermea luzatzen duen urte bakoitzeko. Urte osotzat hartuko dira soilik, gehienez 5 urteraino (Kontuan izanik gutxieneko bermea urte batekoa dela, 6 urteko bermea, guztira).	5 puntu (puntu 1 urte bakoitzeko)	**PROPOSAMEN EKONOMIKOA EREDUA (II eranskineko ereduan jasotako atal berezian zehaztu beharrekoa)**
IRIZPIDEA: Hobekuntzak: Udal-bideak asfaltatzeko azalera handitzea baloratuko da, proiektuan hasieran aurreikusitako	25 puntu	**PROPOSAMEN EKONOMIKOA EREDUA (II eranskineko ereduan jasotako atal berezian zehaztu beharrekoa)**

azalerarekin alderatuta, eta horrek ez du inola ere handituko enpresa adjudikaziodunak eskainitako prezioa. Enpresa lizitatzaileak asfaltatze-azalera gehigarri bat gauzatzea eskaini ahal izango du, metro koadrotan (m²) adierazita, eta proiektuan eta preskripzio teknikoen agirian ezarritako ezaugarri tekniko, material, lodiera, azaleraren prestaketa eta gauzatze-baldintza berberekin gauzatuko da. Leku bakar batean egingo da, Gamiz Fikako Udalak aukeratuta. Puntuazioa proportzionalki esleituko da, formula hau aplikatuz: P: enpresa lizitatzaileak lortutako puntuazioa. Pmax: irizpideari esleitutako gehieneko puntuazioa. M2: enpresa horrek eskaintzen dituen asfaltatze-metro koadro gehigarriak. M2max: metro gehigarri gehiago eskaini duen enpresak eskainitako metro koadro gehigarrien kopurua. $$P = P_{\max} \times \frac{\mathrm{M2}}{M2_{\max}}$$		

BALIO ANORMALAK EDO NEURRIZ KANPOKOAK DITUZTEN ESKAINTZAK (149 art.)

Bai ezartzen da. Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituztela joko da eskaintza ekonomikoaren kasuan, aurkeztutako eskaintzen batez bestekoaren % 20 baino gutxiagoko prezioa duten eskaintza ekonomikoak.

• Administrazio Klausulen Plegu Partikularrean xedatutakoaren arabera, eskaintzak ez dira onartuko, baldin eta egiaztatzen badute oso baxuak direla, azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dituztelako betetzen ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikatzekoak diren betebeharrak, baita indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea ere, 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

• Balio ezohikoak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintzetan, AKPPren 18. klausulan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

GAMIZ-FIKAKO UDALA
BIZKAIA

V. KONTRATUA ESLEITZEA

KONTRATAZIO-MAHAIAREN OSAERA:

SPKLren bigarren xedapen gehigarriaren 7 atalean jasota daogoena jarraituz Udalbatzak, 2026ko ekainaren 25ean egindako ohiko bilkuran eratutako kontratazio mahaia izango da. (2026-07-13. BAO.131, publikatua)

BERMEAK:

1.- Behin-behineko bermea:

☒ Ez da behar
☐ Bai, (LOA 3%, BEZik gabe) behar da arrazoi honegatik:

2.- Behin betiko bermea:

☒ Bai, eskaintzaren % 5, BEZik gabe.
☐ Ez, salbuetsita arrazoi honegatik:
☐ Ez da behar SPKLren 159.6 artikuluan aurreikusitako izapidetzea jarraituz gero, prozedura ireki sinplifikatu laburtua.

VI. KONTRATUA GAUZATZEA

KONTRATUAREN ARDURADUNA:

Izena eta kargua: Daniel Maeztu Perez

Telefonoa: 94 615 31 14

Emaila: idazkaritza.gamiz-fika@bizkaia.org

Kontratuaren jarraipenaz eta exekuzio arruntaz arduratzen den unitatea: Idazkaritza

PREZIOA ORDAINTZEA:

1.- Modalitatea: Ordainketa partzialak aldizkakotasun honekin egingo dira: HILERO FAKTURA.

2.- Ordaintzeko modua: Aldez aurretik faktura elektronikoak aurkeztu beharko ditu kontratistak, administrazio-klausula zehatzen agirietan xedatutakoaren arabera. Behin, kontratuaren arduradunak, faktura onartuta, SPKLren 198. artikuluan aurreikusitako legezko epeen barruan ordainduko da.

Kontratistari jasanaraz dakiokeen edozein motatako ogi bidesari, gasturi eta BEZari Erakundeak nahitaez egin beharreko edozein zerga edo tributu kendu ondoren egingo da ordainketa.

Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratistak administrazioari eman beharko dio administrazioak eskatzen dion edozein dokumentazio, enpresak langileekin dituen lan- eta gizarte-betebeharrak betetzen dituela egiaztatze aldera. Era berean, kontratatutako obren benetako kostua egiaztatzeko balio duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko du enpresak administrazioak berariaz eskatuz gero.

Administrazioak baldintzatu ahal izango du kontratuaren prezioa ordaintzea eskatutako dokumentazioa aurkeztu arte, betiere baldintza etengarria berariaz jakinaraziz.

Fakturaren organo hartzailea: kontratuaren arduraduna

Kontabilitate publikoaren arloko organo eskuduna: Udalaren kontu-hartzailetza

PREZIOAK BERRIKUSTEA: Ez dagokio, 103.1 SPKL artilukuarekin bat.

KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK:

LAN ARLOKOAK	a) Hitzarmena: Enpresa edo pertsona esleipendunak aplikatu beharreko hitzarmena (Bizkaiko eraikuntza sektoreko hitzarmena) osorik aplikatu beharko du. Baldintza horiek gaur egun zerbitzuak ematen dituzten langileei aplikatuko zaizkie, bai eta ondoren kontratatuko diren langileei ere. Langileen baldintzak oso-osorik mantenduko dira, mugarik gabe. b) Esleipendunak bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatu beharko ditu. Langile horiek esleipendunaren mende egongo dira esklusiboki, hark bete beharko baititu lan-legeriaren, gizarte-segurantzaren, laneko segurtasun eta higienearen eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden lege-xedapenak, eta Administrazioa salbuetsita geratuko da ez-betetze horren erantzukizunetik. c) Enpresa edo pertsona esleipenduneko langileek ezin izango dute inola ere lan-harremanik, kontratuzkorik, funtzionario-harremanik edo bestelako harremanik izan Gamiz-Fikako Udalarekin, ez kontratuak irauten duen bitartean, ez kontratua amaitu ondoren. d) Kontratistak obra behar bezala egiteko behar diren ekipoa eta baliabide osagarriak jarri beharko ditu. Administrazioak desegokitzat jotzen duen edozein elementu baztertu ahal izango du. e) Kontratistak modu frogagarrian justifikatu beharko dio udalari, udalak hórrela eskatuz gero, kontratu hau gauzatzera atxikitako langileei dagozkien Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta dituela.
INGURUMEN ARLOKOAK	a) Enpresa kontratistak bereziki zainduko du obrak egiten diren bitartean ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izatea, eta, bereziki, eraispenetik eratorritako hondakinen kudeaketa egokia bermatuko du, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz. b) Enpresa kontratistak behar diren neurriak hartuko ditu lanak egitean sortutako hauts-isuriak murrizteko, ingurumenean eta bizilagunetan eraginik ez izateko. Horretarako, dagozkion neurriak hartu beharko ditu bere kontura, lanen zuzendariak edo udal-ordezkariek agindutako neurriez gain. c) Lanak, txostenak eta bestelako materialak formatu elektronikoan entregatuko dira lehentasunez. Inprimatu behar badira, eta irakurgarritasun-arazorik ez badago, paper birziklatuan inprimatuko dira, alde bikoitzean eta monokromoan (zuria/beltza).
HIZKUNTZA	a) Herritarrekiko hartu-emanak: - Eraikinean edo obraren inguruetan instalazioan agerian (ikusgai zein entzungai) egongo den informazioa, alegia, idatzizkoa zein ahozkoa, euskaraz emango da. - Hizkuntza paisajea (seinalizazioa, oharrak, e.a. -Baldintza administratiboetako 39. atala-) euskaraz egongo da. Komunikazioa errazteko, piktogramak erabiliko dira euskarazko azalpen-testuek lagunduta edo, administrazioarekin adostuta, testu elebidunen bidez, euskarari lehentasuna emanda. b) Udalarekiko hartu-emanak: Udaleko lan-hizkuntza euskara da. Hori izan beharko du kontuan esleipendunak kontratu honen ondorioz sortu diren hartu-emanetarako. Beraz, ahal dela, solaskide euskaldun bat izendatuko du horretarako.

Baldintza horiek kontratuko funtsezko obligaziotzat jotzen dira; beraz, obligazio horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore publikoko kontratuen Legearen 211 artikuluari jarraiki, edo kontratuarekin aurrera jarraitzea zigor bat jarrita, eta zigor horren zenbatekoa izango da ez-betetzearen larritasuna eta ondorioen araberakoa, eta derrigorrez, aurrekontuaren zenbatekoaren %10a baino gutxiagokoa, BEZa kenduta, eta Sektore Publiko kontratuen Legearen 192. artikuluari jarraiki, ezin daiteke izan kontratuaren %50a baino gehiagokoa

ASEGURUAK:

Kontratistak erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat izan beharko du, gutxienez 300.000 €ko estaldurarekin edo Kontratistak nahitaezko aseguruak izan beharko ditu, bai eta ERANTZUKIZUN ZIBILEKO aseguru espezifiko hauek ere, esleipendunak kontratua formalizatu aurretik egiaztatu behar dituenak: Bai, administrazio-klausula zehatzen pleguaren 27 artikuluan adierazitako frankizia-mugarekin eta ezbeharragatiko kalte-ordainen gutxieneko mugarekin.

KONTRATUA LAGATZEA:

Kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratistak SPKLren 214.1 artikuluaren bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera:

☐ Bai

☒ Ez. Lagatzailearen ezaugarri teknikoak eta pertsonalak izan dira kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak

AZPIKONTRATAZIOA:

1.- Azpikontratatzeko aukerari mugak ezartzen zaizkio:

☒ Ez

2.- Lizitatzaileek honako informazio eta/edo dokumentazio hau eman beharko dute azpikontratazioaren kasuan:

- Kontratuaren zatiak gauzatzeko azpikontratazioaren kasuan, GUTUN-AZALEAN, aurkeztu beharreko I eranskinean “erantzukizunpeko adierazpena”, azpikontratatu nahi duten kontratuaren zatia adieraziko dute, ehunekoa adierazita eta azpikontratistaren izena edo enpresa-profila identifikatuta. Nolanahi ere, azpikontratuak egiteko, administrazio-klausula zehatzen agirian adierazitakoa bete beharko da.

3.- **Zuzeneko ordainketa azpikontratistei:** EZ

KONTRATU-ZIGORRAK:

1) Berandutzeagatik: AKPPren zigorrei buruzko klausulan ezarritakoak.

2) Betearazpen-baldintza bereziak behar bezala ez betetzeagatik: kontratuaren prezioaren% 10era arte.

3) Soldaten ordainketa behin eta berriz ez betetzeak edo atzeratzeak, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza txikiagoak aplikatzea larria eta dolozkoa bada, 192. artikuluan aipatutako zigorrak ezarriko dira.

4) Esleipen-irizpideetan baloratu diren konpromisoak ez betetzeagatik: kontratuaren prezioaren% 0,1etik kontratuaren prezioaren% 10erainoko zigorra aplikatuko da, ez-betetzearen larritasunaren proportzioan.

5) Esleipenerako irizpide sozialak ez betetzeagatik: kontratuaren prezioaren% 0,1etik kontratuaren prezioaren% 10erainoko zigorra aplikatuko da, ez-betetzearen larritasunaren proportzioan.

6) Kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik: kontratuaren prezioaren% 0,1etik kontratuaren prezioaren% 10era arteko zigorra aplikatuko da, ez-betetzearen larritasunaren proportzioan.

KONTRATUA ALDATZEA (SPKLren 204. art):

1.- Aurreikusitako kontratu aldaketak: ez dira aurreikusten.

2.- Aurreikusi gabeko aldaketak: aurreikusi gabeko aldaketak egin ahal izateko, interes publikoko arrazoiak direla-eta eta SPKLegearen 205 artikuluak ezarritakoa betez.

Ez da aldaketatzat hartuko eskaintzan bertan baloratutako hobekuntzak onartzea lizitazio-prezioaren mugaraino. Hobekuntza horiek, kontratuan jaso beharko dira.

OBRA EGIN IZANA EGIAZTATZEA, HARRERA ETA BERME-EPEA.

1.- Prestazioa behar bezala eman dela egiaztatzeko modua: Obra hartzearen akta.

2.- Berme-epea: Bai, gutxieneko urte bete.

EZ BETETZEA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIA DEN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK:

1.- <u>Kontratu-betebehar orokorrak</u>.

- Administrazio-klausula zehatzen agirian eta, hala badagokio, kontratua justifikatzeko memorian adierazitako exekuzio-baldintza bereziak.

- Kontratua gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzea, bereziki proposamenean adierazitakoak.

- Azpikontratazioa egiteko baldintzak, SPKLren 215.3. b) artikulua.

2.- <u>Gizarte edo lan arloko betebeharrak:</u>
Kontratua gauzatzeko aldi osoan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak betetzea, eta, nolanahi ere, langileen soldata-baldintzak betetzea, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboari jarraiki.

KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK:

1.-Kontratua suntsiarazteko arrazoi gehigarriak ezartzen dira: Ez

2.-Beste suntsiarazpen-arrazoi batzuk ezartzen dira:

- Eskaintzan jasotako baldintzak ez betetzea.

- BTPn funtsezkotzat jotako betebeharrak ez betetzea, hala badagokio.

- Bereziki, karatula honetan adierazitako funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzea, hala badagokio.

LAN-HARREMANETAKO SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA:

☒ Ez da behar.

☐ Bai, lizitazio honi eransten zaion “Langileen zerrenda” izenburua duen dokumentuan operadore ekonomikoek informazioa eskuratu dezakete gaur egun prestazioa egiten ari diren langileen kontratuen baldintzei buruz, baldin eta gaur egun zerbitzua ematen ari diren enplegatzaileek halako informazioa eman badute. SPKLren 130. artikuluan aurreikusitakoa betez ematen da informazio hori.

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO KLAUSULA GOMENDIOA:

Lizitatzaileei gomendatzen zaie, azken uneko arazo teknikoak saihesteko, behar besteko aurrerapenarekin aurkez dezatela eskaintza.

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA:

Proposamenak elektronikoki aurkeztuko dira Euskadiko Kontratazio Plataformaren bidez (Gamiz-Fikako Udalaren kontratatzaile-profila).

Konfidentzialtzat jotako eskaintzaren informazioak banakako fitxategian agertu beharko du, eta hala jasoko da lizitatzaileak dagokion gutun-azalean (fitxategiaren izena) aurkeztuko duen erantzukizunpeko adierazpenean.

Plataformak ez du mugarik ezartzen eskaintza bati erantsi dakizkiokeen artxiboen kopuruan.

Lizitatzaileen ardura da eskaintzek birusik ez dutela zaintzea. Hala ere, birusa edukitze hutsak ez du esan nahi eskaintza baztertzen denik, baldin eta edukia ikusteko aukera badago.

Kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta, Kontratazio Mahaiak erabakiko du.

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:

Hogei (20) egun. Eskaintzak egunean 24 orduz aurkeztu ahal izango dira, asteko 7 egunetan.

Eskaintza aurkezteko eguna eta ordua plataformaren erregistro elektronikoak emandako frogagirian agertzen direnak izango dira, eta eskaintza jasotzen den unearekin bat etorriko dira.

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez bidali ahal izango dira, edo osorik, une bakar batean edo bi fasetan. Lehenik eta behin, eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa transmitituko da, eta hura jasotzearekin batera, eskaintza bera ondorio guztietarako aurkeztutzat joko da. Bigarren eskaintza aurkeztuz gero, epea barruan egindako bigarrena da kontuan hartuko dena.

Eskaintzaren "hash" aztarna elektronikotzat hartzen da eskaintzaren beraren edukiarekin zalantzarik gabe erlazionatuta egotea bermatzen duen sorrera-prozesua duen datu-multzoa, eskaintzaren edukiaren balizko aldaketak detektatzeko aukera ematen duena eskaintzaren osotasuna bermatuz; izan ere, haren edukia lizitatzaileak bidali duen unetik ez dela aldatu egiaztatzeko aukera ematen du.

Lizitatzaileek eskaintza bi fasetan bidaltzea erabakitzen badute, adibidez, eskaintzaren tamainaren ondorioz eskaintza transmititzeko zailtasunak aurreikusten direlako, sarearen konexio-arazoak aurreikusten direlako, etab. Eskaintzak aurkezteko epea eta ordua amaitu baino lehen, eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa bidali beharko dute. Kasu horretan, 24 orduko epea izango dute eskaintzaren bidalketa osatzeko. Epe hori "hash" aztarna elektronikoa gamiz-fika@bizkaia.org hellbide elektronikora bidaltzen den unetik zenbatuko da, eskaintzak aurkezteko epea eta ordua amaitu baino lehen.

Lizitatzaileek beren eskaintzaren "hash" transkribatutako (ez irudia) hatz-marka elektronikoa bidali beharko dute gamiz.fika@bizkaia.org helbide elektronikora, kontratuaren xede den espediente-zenbakia adierazita, lizitatzailearen identifikazio-datuekin batera, kontratazio-mahaiak egiazta dezan hatz-marka digital hori bat datorrela eskaintzaren aztarnarekin, behin eskaintza bidalita (espedientea ezin bada identifikatu, lizitaziotik baztertzeko kausa izan daiteke).

Artxiboa kaltetuta dagoelako eskaintza baten edukian sartzerik ez badago, lizitatzailearen ekipoan automatikoki sortutako kopia lokala erabil daiteke, eskaintzaren aztarna digitala kontratazio-organoaren esku dagoenarekin bat datorrela egiaztatuz.

JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK:

Kontratu hau esleitzeko prozedura izapidetzeak berekin ekarriko du horietatik eratorritako jakinarazpenak eta komunikazioak bitarteko elektroniko hutsez egitea. Jakinarazpenak agerraldi elektronikoaren bidez egingo dira.

Jakinarazpenak eta komunikazioak agerraldi-sistemaren bidez egiteko, interesdunak edo haren ordezkariak Gamiz-Fikako Udalaren web-orrian horretarako diseinatutako atalean eskuragarri jarritako jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukira joko du, jarduera honetarako onartutako identifikazio- edo sinadura-sistema elektronikoren bat erabili ondoren.

Bertaratze-sistemaren bidez egindako jakinarazpen elektronikoa egintzat joko da, legezko ondorio guztietarako, interesduna edo haren ordezkaria haren edukira sartzen den unean.

Jakinarazpena eskura jarri dela egiaztatuta **10 egun natural** igarotzen badira hartzaileak jakinarazpenaren edukira sartu gabe, jakinarazpena ezetsi egin dela ulertuko da, eta izapidea gauzatutzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du, legez beste epe bat ezarri ezean.

Epeak jakinarazpen-abisutik hasiko dira zenbatzen, baldin eta jakinarazpenaren xede den egintza egun berean argitaratu bada kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Bestela, interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik hasiko dira zenbatzen epeak.

Aurrekoa gorabehera, kontratatzailearen profilean publizitatea egiteko betekizuna ez zaie aplikatuko errekurtso bereziaren prozedura dela-eta egindako jakinarazpenei, horietan kontuan hartuko baita artikulu honetan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epea. SPKLren 50. artikulua, jakinarazpen-abisuaren datatik aurrera.

AMAIERAKO OHARTARAZPENA:

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik, hura hartuko da aintzat lizitazio honetako testu guztietan.

Karatula hau 2026ko azaroaren 12an sinatutako 154-2026 alkate dekretuan onartu da.